

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENDIOLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Luberrien aprobetxamenduaren lizitazioa

Mendiolako Kontzejuak, 2021eko uztailaren 21ean auzokoen batzarrak egindako bilkuran, onespena eman zion baldintza ekonomiko-administratiboen eta berariazko betekizunen agiriri, zeinen bidez arautuko baita 703 zenbakiko katalogatutako mendian dauden "Monte Redondo", "Txojapiedra" eta "Bardoya" luberrien aprobetxamendua.

1. Erakunde adjudikatzailerak: Mendiolako Kontzejua.
2. Kontratuaren xedea: Mendiolako Kontzejuarenak diren honako luberrien baterako aprobetxamendua:
 - Monte redondo, 703 zenbakiko katalogatutako mendian dagoena. Azalera: 8,61 ha.
 - "Txojapiedra", 703 zenbakiko katalogatutako mendian dagoena. Azalera: 12,92 ha.
 - "Bardoya", 703 zenbakiko katalogatutako mendian dagoena. Azalera: 18,33 ha.
3. Iraupena: Bost basogintza urteko epea, 2026ko irailaren 30ean bukatuko dena. Epe hori beste 5 urtez luzatu ahal izango da, orrian adierazten diren baldintzetan.
4. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:
 - Izapidetzea: arrunta
 - Prozedura: irekia.
 - Forma: lehiaketa.
5. Aprobetxamendu kanona: urteko kanona 9.817,50 euro da guztira.
6. Bermeak: behin betikoa, kontratuaren denboraldi osoko kanonaren guztirako prezioaren ehuneko 5.
7. Agiriak eta argibideak eskuratzea:
 - a) baldintza ekonomiko-administratiboen eta berariazko betekizunen agiria eskuragarri egongo da Mendiolako Kontzeju Aretoan, Olanabe hiribideko 10 zenbakian. Joan aurretik 655 724 301 telefonora deitu beharko da.
 - b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: Agiria, dokumentazioa eta informazio osagarria orriaren 6. klausulan adierazitakoari jarraituz eskatu eta eskuratuko da.
8. Kontratataren berariazko betekizunak: Baldintzen agirian zehaztutakoak.
9. Eskaintzak balioesteko irizpideak:
 - a) Jarduera nagusi horien ustiaketa izatea.
 - b) Nekazari gaztea izatea
 - c) Auzoa edo ingurukoa izatea(Ikus klausula baldintzen agiria, puntuazioa zehazteko).

10. Eskaintzak aurkeztea:

a) Epemuga: 15 egun naturaleko epea, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14etara. Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: agirian jasotzen dira.

c) Aurkezteko lekua: Elorriagan (Araba) horretarako gaitu den lokal batean (Elorriagako Batzar Etxea, 9 zenbakia , PK: 01192, Telefonoa: 945 281770).

d) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: ikusi agiria.

e) Aldaerak onartzea: ez

11. Eskaintzak irekitzea:

a) Eguna: B gutun azala, lehiaketaren esleipen irizpideei buruzkoa, 2021eko urriaren 2an (larunbata) irekiko da, 12:30ean.

b) Lekua: Mendiolako Kontzeju Aretoa, Olanarbe hiribidea, 10, Mendiola.

12. Bestelako argibideak: ikusi agiria.

13. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Mendiola, 2021eko irailaren 7a

Lehendakaria

JUNCAL FERNÁNDEZ DE BASOA DÍAZ DE GARAYO